# Urteko 19. Igandea C

# 32. Salmoa

*L.a. 19 / S.a. 28*




**Bai dohatsua Jaunak hautatu populua.**

Bihotz garbiak bozkario,
Jaunari kantu zor baitzaio.
Garbi denari doakio
Helaraztea laudorio.

Herriak badu Jauna Jainko,
Hura dohatsu sekulako.
Huna bai Jauna dena begi,
Hari daudenen zain egoki.

Heriotzetik ditzan jalgi,
Eta nasaiki eman ogi.
Jainko Jaunaren beha gaude,
Hura guk lagun, adiskide.

Gure gainerat ager, Jauna
Zure betiko bihotz ona.
Gure bihotza baita dena
Zuri osoki, Jainko Jauna.

Tout droit proprité de l'Abbaye de Belloc
Itzulpena : Xavier Diharce - Iratzeder O.S.B. ; Airea : Gabriel Lerchundi O.S.B.